



EUSKARA IKASTEKO BEKAK (2005/06)

HELBURUA

Beka-deialdi honen helburua hau da: euskara ikasteak inplikatzeko duen gastua oztopo ez bihurtzea hizkuntza hau ikasteko. Ahalegin berezi hau egiten da euskara gure hizkuntza ofizialetako bat izanik, asko direlako oraindik menperatzen ez duten audioarrak. Hortaz, hizkuntza normalizazioa lortzeko helburuarekin egiten den ekimen bat da.

Kontuan izan behar da laguntza bat dela eta ez finkatutako eskubide bat. Horregatik, beka deialdia eta onuraduna izateko eskakizunak urtero argitaratu behar dira.

LAGUNTZEN DIREN IKASKETAK

Ikastaro arruntak (Euskaltegiak): 2005-10-03 eta 2006-09-29 epearen barruan egindakoak.

Barnetegiak: 2005-11-02 eta 2006-09-29 bitartean egindakoak.

Edozein kasutan, **euskaltegi homologatuetan** egin behar da (ia-ia guztiak dira. Irakaskuntza partikularra, ordea, ez da homologatua).

Ikasketak, euskaltegi edo barnetegi homologatuetan diren bitartean, edonon egin daitezke, bai Laudiokoetan zein kanpokoetan izan.

ZENBATEKOA DA BEKA?

Izandako **gastuaren %75**. Euskaltegi arruntetan, gastua matrikulari dagokio eta, barnetegietan, matrikula, janari eta lo egiteko gastuei dagokiena. Edozein kasutan ere, bidaia, material eta antzekoei dagozkien gastuak ez dira lagunduko.

Ikastaroa hasten den egunean eskatzaileak 60 urte betetik balitu gastuaren %100 ordainduko zaio.

ZER BEHAR DUZU BEKA BAT ESKURATZEKO

- Laudion erroldatuta egotea. Ikastaroa hasten den egunean, gutxienez, etenik gabeko urte bete egon behar da erroldatuta.
- Eskola-orduetarako asistentzia, gutxienez, %85ekoa izatea.

E- 2006/035
EUSKARA ARLOA

- Ez izatea zorrik Aldundia, Gizarte Segurantzza edo Udalarekin. Hau egiaztatzea Udalaren ardura da. Hau da, ikasleek ez dituzte paper horiek ekarri behar.
- Ez gainditzea ondoko taulan agertzen diren diru-sarrerak.

FAMILIA-KIDE KOPURUA	URTEKO DIRU SARRERAK
1	14.000 euro
2	17.900 euro
3	21.800 euro
4	26.500 euro
5	31.600 euro
6 edo gehiago	36.600 euro

Diru-sarrerak kalkulatzeko azken errentaren aitortpena erabiliko da. Eskatzailea 1980 edo ondorengo urteetan jaioakoa bada bere aitortpena gehi gurasoena hartuko dira kontuan eta bestelako kasuetan berea baino ez da behar (ez badu beste familia unitate berri bat sortu). 60 urte baino gehiago dutenek ez dute dokumentazio hau aurkeztu behar.

Kopuru hauek kalkulatzeko, "Kargatutako likidazio oinarri orokorra" kopuruari "Atxikipen modura egindako ordainketa" kontzeptupean dagoen kopurua kendu behar zaio.

Atal hau nahasgarriena denez, zalantzarik izanez gero hobea da Euskara Arlora zuzen jotzea.

- Ikastaro berbera egiteko beste laguntzarik eskatu bada, jakinarazi behar zaio Udalari. Edozein modutan, onuradunak eskura ditzaketen laguntzen batuketak ezin du inolaz ere gastua gainditu.

ESKAERAK

Eskaerak aurkezteko azken eguna **2006ko urriaren 31** izango da. Udaletxean aurkeztu behar dira, Erregistro Nagusian. Hala ere, komenigarria da aldeztatik Euskara Arlotik pasatzea aztertzeke ea agiri guztiak zuzen dauden.

EKARRI BEHAR DUZUN DOKUMENTAZIOA

Lana errazteko, Euskara Arloan eskaera egiteko eredu bat prestatu dugu. Bertan, gainera, jasota dago ezinbestez ekarri behar diren agiriak. Eredu hau Udaletxeko Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan, Euskara Arloan edo e-postaz (euskara@audiokoudala.net) ere eskatu ahal duzu.

Edozein modutan, honako hauek dira eskabideaz gain ekarri behar dituzun paperak:

- Ikastaroari dagokion matrikula ordaindu izanaren agiria.

E- 2006/035
EUSKARA ARLOA

- Errenta-aitorpen(ar)en fotokopiak. Eta lanean ez dauden familia kideen edo eskatzailearen agiri bat (Aldundian egiten dute doan) egiaztatzeko lanik edo diru-sarrerarik ez dutela¹.
- Familia-unitatearen errolda agiria. Udaletxean emango dizute.
- Euskaltegia edo barnetegiaren agiria (asistentzia, ordu kopurua...)
- Zinpeko aitortpen bat esanez eskatzailea ez dagoela legez ezinduta diru-laguntza publikoak eskuratzeko. Hau legeak eskatutako tramite bat besterik ez da. Euskara Arloan eredu bat prestatu dugu eta izena jarri eta izenpetzearekin nahikoa da.
- Zinpeko aitortpen bat esanez ea ikastaro bera egiteko bestelako laguntzak eskatu edo jaso diren. Euskara Arloan eredu bat prestatu dugu eta izena jarri eta izenpetzearekin nahikoa izaten da.

LAUDION DITUGUN EUSKALTEGIAK

Esan bezala euskara ikastaroak ez dira halabeharrez Laudion egin behar: edonon egin daitezke zentroak homologatuak diren bitartean.

Hala ere, zure herrian eskaintza paregabea, urte askotako euskalduntze lanaz ongi berrmatua, euskara ikasteko. Honakoak dituzu gure udalerriko euskaltegi homologatu biak:

- **Udal euskaltegia** Lamuza parkea, z/g
☎: 946 722 838 ✉ euskaltegia@audiokoudala.net
- **AEK. Berbofs euskaltegia**. Zubiaur, 5
☎: 946 726 722 ✉ audio@aeknet.net

OHARRA

Orri honetan jasotako informazioa eskuartean erabiltzeko jatorrizko oinarri arautzaileen bertsio laburtu bat baino ez da. Bertsio osoa eskuratu nahi izanez gero, eskatzea besterik ez duzu. Gogoan izan, horretarako edo bestelakoetarako Euskara Arloa duzula zure udaletxean.

Euskara Arloa – Laudioko udaletxea – Herriko plaza, z/g 01400 LAUDIO
(☎: 944 034 890) www.laudiokoudala.net ✉: euskara@audiokoudala.net

EUSKARA ARLOA

¹ Lanik ez izatekotan, aitarena, amarena eta eskatzailea, berau 1980 edo ondorengo urteetan jaiotakoa bada. Senar, emazte edo bizikidearena, eskatzailea 1980 baino lehen jaiotakoa bada eta familia unitate berri baten kidea bada.